


# Baleike

Zumaiaiko herri aldirikaria. 32. zenb. 1997ko otsaila. 100 pzta.




**Elkarrizketa**

**Bernardo  
Mendiberekin  
Udal elkartearen  
ezagutuz**

*Herritarren  
osasuna  
jokoan*




FOTOTEKAK utzitako argazkia




ARRANPLA GAINEZKA

*A ze olatua! Marea biziak izango ziren eta euri zaparraden eraginez uhala etorriko zen; bestela nola uler liteke arranplako petrila hain errez gainditzea? Urte mordoxka bat izango du argazkiak, 20tik gora, Patxita Etxezarretako etxeek adierazten digutenez. Urak behera egindakoan angularik geratuko ote zen errepidean saltoka?*



Argitarapen honen editzioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

 **kutxa** fundazioa  
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

Aldizkari honek Eusko  
Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
dirulaguntza jaso du



ZUMAIKODALAK  
lagundutako aldizkaria





**BALEIKE  
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

**ZUMAIAKO**

**GAZTE**

**BATZORDEA**

lantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

Ostarrena zine-forum taldea,

Argazki Elkartea,

Bertso Eskola, Eulali,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Unai Armendia,

Amaia Benito, Jon Manzidor,

Igone eta Nerea, Josu eta

Arantxa, Asier eta Fran, Ainhoa

Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda  
**Mendi Aste  
interesgarria  
izango dugu  
otsailean**  
...27 or.



Ze berri?  
**udal  
aurrekontuak  
onartu dira**  
.... 6 or.

Izerdi patsetan  
**Eskoletako  
kirolari  
buruz**  
....24. or.



**Monoarekin nago**

Monoarekin bai, Tximuarekin.

Informazio monoa daukat, eta aurrekontuei begira ez dut argibiderik aurkitu. Kirol portuaren inguruko informazioa nahi dut, behar dut. Egin behar al dute? Ausartuko al dira behingoz gure padura txikitzen, edo propaganda hutsa da? Monoarekin nago, eta monoak paranoiak ikusarazten dizkit. Antzeko tximu ugari dakusat nire inguruan burua askatzen dudanean:



**Josu Waliño**

Jeltzale monodunak (ala jeltzale monoak?) ikusten ditut batzokian Internet-eko amaraunan nabigatzen, Santixoko paduran nabigatu ezinean. Monoarekin dauden Pulpozaleak dabilta Zumaiakori so, eskubaloi taldearen esponsorra ez dutelako gogoko eta bitartean, mono koipetsu batez jantzitako hainbat langilek aurpegi txarrez begiratzen dute Basadiko promotora huts bezain zentzugabea.

Monoarekin nago eta informazioa behar dut. Ez dut olentzerodun orrietan nabigatu nahi gure padurarekin zer gertatuko den jakiteko, bertako bizitza guztiarekin zer egin asmo duzuen jakiteko, baina badakit ez nauzuela informatuko, desinformazioa delako zuen bidea.



**PREMIAZKO  
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia....	86 02 48
Alkoholikoen senideak...47	54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44




**PROPOSAMENTXO BAT**

Zumaiako euskaltzaleoi, gure hizkuntzaren maitaleoi hitz bi egin nahi dizuet gure aldizkari jator honetako leihatila honetatik. Ez da garrantzi haundiko gauza, baina neri behintzat min ematen didana, eta zuei ere berdin emango dizuela uste dut; eta mina kentzea osasungarri denez, horretarako idazten dizuet.

Gure etxeetara bidaltzen dizkiguten propaganda orriak aspaldi honetan erdera hutsean datoz, ia denak, eta gainontzeko informazio idazkiak ere berdin, udaletxeokoa salbu. Erropa bildu asmoz etxez-etxe ibiltzen diren beltzei ere, neuk behintzat zenbat aldiz esan ote diet orritxoak atarian jartzerakoan euskaldunoi errespetu pixka bat eduki deiguten; oso ondo entzun izan dit aldian aldian tokatu zaidanak, baina alperrikakoak izan dira nere orain arteko ondoesanak. Garai batean euskaldunoi begirune edo agian bildur gehixeago ziguten gure buzoietan idazkiak banatzen zizkigutenek, eta gutxienez bi hizkuntzetan egin ohi zuten baina orain....gero eta lotsa gutxiagorekin jokatzen dute gurekin. Atzeraka goaz hamarren antzera. Nola inork ez duen ezer proposatzen, nola erderaz denok ulertzen dugun, nola berdin saltzen duten erderaz bakarrik eginda ere, zertarako endredatu bi hizkuntzetan egiten, erderaz egin eta kitto.

Nere proposamena hauxe duzue, Zumaiako euskaltzaleoi zuzen-dua: "gure hizkuntza hain lotsagabeki baztertzen dutenei agertu diegun min ematen digutela, ulertzen duten mintzaera bakarrean,



diruaren hizkuntzan alegia"; ikus dezatela euskaraz ala erderaz egin ez zaigula berdin, eta ez dutela berdin saltzen gure artean. Nik badakit arazotxo hau ez dugula konponduko ohartxo batekin, baina ez dut dudarik euskaltzaleok gure jarrera aldatzen badugu, denbora asko baino lehen aldatuko dutela saltzaileek ere berena. Nahi baduzue hurrengo batean, Baleikeko zuzendariak ametitzen badidate behintzat, gure buzoietan euskera baztertuz eta zapalduz jarraitzen duten dendari eta abarren zerrenda hemen plazaratzeko ez dut inongo kezkarik, horrela min ematen digun arantza hau atera kanpora eta Zumaiako euskalduntzeko bidean poliki poliki, pausoz pauso, orain hau eta gero hura eginez aurrera dezagun. Zer iruditzen?

Joanito Dorronsoro



**ERREPRESIOARI  
ERANTZUN!**

Azken hiru asteotan **gazte eta abertzale** izateagatik 60 lagun baino gehiago **atxilotu** dituzte. Badirudi atutxakumeei ("ertzainei") eginiko kritikak asko mindu dituela PNV-ko zenbait agintari, eta polizi "euskaldun" honen "efikazia" Madrili erakutsi asmoz edo, hainbat

gazteren atxiloketei ekin die. Atxiloturiko gazte batzuk "Y Grupokoak" omen dira. Itxura denez, politiko eta polizi zenbaitek gazte hauetariko hainbatek baino gehiago dakite, guztiok baitakigu "Y Grupo" hauen sorrera estatuaren aparailu ezkutuetarik irtena eta guztia muntaia polizial bat baino ez dela, (Beraz, ez al zaizue iruditzen zail xamarra dela existitzen ez den talde bateko kide izatea?).

Azken denboraldian gazteriaren lan egiteko gogoak agerian geratu da eta PP-koak (nahiz PNV-koak) badirudi beldur direla gazteri honek etorkizunaren alde gehiegi borrokatu ez duen eta agian, egunen batean Euskal Herriaren subiranotasuna lortuko ez ote duen. Hau jazo ez dadin ordea, ezkutuko nahiz ageriko hamaika aparailu martxan jarri dituzte eta komunikabide (?) masiboen bidez igorritako gazteriaren aurkako mezua herritar orori helarazi nahi izan die, benetan arazo eta gatazka honen gakoak non dagoen ikusten uzten ez dietelarik **komunikabide (?) ofizialek esanikoa** sinesten duen orori.

Guk, ordea, gogor ekingo diogu komunikabideek islatzen ez duten errealitatea Euskal Herriko txoko guztietara heldu arte. Eta ea behingoz konturatzen diren hainbat euskal herritar, beraiek bermaturiko eta zilegitasuna emaniko zipaioek gazteak torturatu, etxeraino jarraitu eta atxilotzen gaituzten arren guk borrokan tinko jarraituko dugula **EUSKAL GAZTERIA ASKATU ARTE!**

Zumaiako Jarrai

**Habana**  
auto  
  
Mekanika eta  
karrozeria  
Axular ibiltokia, 14 - 86 00 70  
Zumaiako

**ROSI**  
GARBIKETAK  
  
• Etxeak eta dendak  
• Enpresa eta auza lanak  
• Erropa garbiketa eta tintaketa  
Basadi 3-A  
Tlf. 861670

**BELARDENDA**  
**SIWA**  
  
Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012




## Presoak larri



ANDONI  
MANTEROLA

Gauz bat kontatu nahi nuke orain jendeak jakin ahal dezan holako gauzik aspalditikan ez baitiot inoi esan presoak sakabanaturikan batzuk hemen besteak hantara beste batzuk jan ezinean gartzelako oinazean

Egina duten delitua da herria defendatzea eta ez da zilegi horregatikan gartzelara joatea hau ikusita nik gaur gogoan daukat hauxe eskatzea preso guztiak beren etxera lehenbailen ekartzea



ABELIN  
LINAZISORO

## Demokratak eta Toleranteak

Ondo modan jarri dira bi hitz hauek! Hitzetik hortzera eta edonoren ahotan entzungo dituzu. Eta badirudi hitz horiek esan eta gero lasai geratzen direla. Bake santuan. Sekula konforme ez diren portzentaia txiki hori kenduz gero beste denok oso ondo bizi omen gara. Gure bizimodua sistema honek sor dezakeen hoberena omen da. Lastima gutxi horiek demokrazia honekin ados ez egotea! Eta demokraziaren izenean: Gazteria jipoitu egingo

dizute eta egin ez dituzten ekintzen erantzule bihurtu; euskara indartzeko/berreskuratzeko eta euskal kultura herrikoia berpiz dadin ez dute planifikaziorik egingo eta ez dute asmorik, antza; froga faltsuz beteriko epaiketak egiten dira; soldaduzkara joan nahi ez duenak espetxea dauka; botoa emateko eskubidea 18 urtetik gora dagoen bitartean 14 urtetik gorakoak espetxeratzen dituzte; gazteriak ez du ia inon beretzat eta beraiek beren artean antolatuta ahal izateko kultur gunerik; lehen zegoen industria suntsiarazi ondoren langabezia indartu egin dute, baina sistemaren alde nabarmentzen denak badu lanik... Eta hemen ez dut aipatuko euskal preso eta deportatuaren egoera edo euren familia, edo egunetik eguneko kaleko euskararen degradazioa eta erabilerarik ezaren zergatia, edo zer ahalegin egiten ari diren euskaldunok geure memoria historikoa galdu edo berreskura ez dezagun; edo gaurko «Audiencia Nacional»a Franco-ren garaian TOP deituriko frogarik gabe epaitzen zuten Auzitegi berbera dela. Eta tortura... eta GAL, CESID, CIA, bideo akusatzaileak, telefono pintxatuak...

Demokratak eta toleanteak omen gara. Hau al da guk nahi dugun demokrazia? Gehiengo batek nahi duena mundu guztiari inposatzea demokrazia jokatzeko ote da? Hori hala balitz Hitler izango litzateke demokratik sutsuena, Alemaniako herriaren hauteskunde eta botoei esker lortu baitzuen poterea. Baina non geratzen dira gutxiengoaren nahiak? Gutxiengoak ez al dauka askatasun eskubiderik? Beharbada hementxe legoke gakoa, demokrazia askatasunean eta giza eskubidetan (gizabanakoenak eta kolektiboak, Herriarenak) oinarritzen delako. Beste guztia kontua eta montai da. Eta, arren, bazter dezagun tolerante hitza, Herri batek edo pertsona batek duen askatasun eskubidearen kontrako bihurtu delako. Agintedunak agindupean duenarentzat daukan begirunea edo tolerantzia, edo zapaltzaileak zapalduarentzat duena, edo erabakitzaileak erabaki horren ondorioak jasaten ari denarekiko.

Amaitzeko. Ziur nago tolerantzia hitza erabiltzen duten asko eta asko euskara, euskal kultura eta abertzaletasunaren etsai amorratuak direla (ez, ordea, euren nazionalismo espagnolarenak) eta demokrazia ahoan darabilten asko Franco-ren garaiko faxistak izanik eta egun alderdi politiko demokratikoetan daudelarik, independentea izan nahi duen euskaldun ororen aurkako pozoia zabaltzen ari direla. Eta hau oso larria da. Larria den bezala salatzaile izatea legezkatzea. Diktadura garaian txibatoa izatea gaizki ikusia zegoen, demokrazian, ordea, eta azken legediari esker, edonork edonoren kontrako informazioa, isilean eta salatzailearen izena ezkutatu, poliziari eman dezake eta poliziak bere ordenagailu sekretuan gordeko du salatuaren kontra nahi duenean erabil dezan. Ondo antolaturiko gizartea. Bai jauna. Jainkoak libra gaitzala demokrata eta toleranteengandik!! Amen.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.  
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412



SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK  
GAS NATURALA - IMPERMEABILIZATZEAK  
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082  
78 Posta kutxa Fax: 148081  
20740 IRAETA - ZESTOA

Antonio Etxabe  
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4  
Tlf: 861407





# 880 milioiko aurrekontu propioa

Urtarrilaren 30ean egindako plenoan onartu ziren aurtengo aurrekontuak

Aurtengorako diru kontuak eginak ditu Udalak. Aurrekontu propioari dagokionez, 880 milioi gastatuko dira, iaz baino %17,03 gehiago. San Juan Egoitza, Musika Patronatoa eta Zumaia Lantzen kontuan hartzen badira, aurrekontua 1.623 milioitara igotzen da. Herri Batasuna izan zen aurrekontuekin ados azaldu ez zen alderdi bakarra.

880 milioiko aurrekontu propioa du aurtengorako gure Udalak. Ez da kopuru makala. Iaztik % 17,03ko igoera izan da. EAJk, EAK eta PSEk emandako aldeko botoekin onartu ziren. HB aurrekontuen planteamendu orokorraren aurka azaldu zen.

Inbertsioen atalak aurrekontuen %23,7a eramango du (iaz % 18,17a). Aipagarriak dira kirol arloan aurreikusi diren inbertsioak. Alde batetik, Oikiako pilotalekuaren bigarren faserako 25 milioi daude. Bestetik, igerileku estaliaren lehenengo faserako 56 milioi gorde dira: hiru milioi proiektua ordaintzeko, beste hiru segurtasunerako proiektuarentzako, eta 50 lehenengo fasearekin hasteko.

Beste inbertsio garrantzitsu batzuk, azpiegitura mailan egingo direnak dira. Burnizko zubiaren lehenengo faserako 20 milioi daude,

1997ko gastuen aurrekontua	
Goi zuzendaritza eta gobernu organoak:	17.336.605
Administrazio orokorra:	77.087.989
Hiritarren segurtasun eta babes zibila:	32.536.510
Gizarte segurantzia eta babesa:	43.667.909
Gizarte sustapena:	9.429.722
Hezkuntza:	39.573.418
Etxebizitza eta hirigintza:	20.800.000
Komunitate ongizatea:	124.014.832
Kultura:	81.896.410
Kirolak:	113.241.378
Gaztedia:	9.605.000
Oinarrizko azpiegiturak eta garraioa:	147.799.876
Nekazaritza azpiegiturak:	13.050.000
Turismoa:	3.584.590
Administrazio publikoei egindako tranferentziak:	65.640.000
Zor publikoa:	81.182.000
<b>Guztira:</b>	<b>880.446.239</b>

eta Estazioko bidea urbanizatzeko 27 inguru.

Etxebizitza eta hirigintza mailan egingo den inbertsio garrantzitsuena Amaia plaza argiteriari dagokio.

Horretarako, 6,5 milioi aurreikusi dira.

Gazterientzat aurtun, 3,2 milioi izango dira (Ludoteka eta besteak aparte).

**Arkupe**  
Okindegia  
eta gosariak  
Kale nagusia, 2



**ERTZ**  
INFORMATIKA

**ORDENAGAILUAK  
MULTIMEDIA**

URTARRILA-MARTXOA  
**WINDOWS  
WORD-EXCEL**

Mendaro Mariñela 3 Tel./faxes 143395





## 1997ko sarreren aurrekontua

Zuzeneko zergak:	156.760.000
Zeharkako zergak:	55.000.000
Tasak eta bestelako sarrerak:	132.050.000
Transferentzi arruntak:	428.200.000
Ondare sarrerak:	12.459.000
Kapital transferentziak:	4.930.000
Finantza aktiboak:	1.500.000
Finantza pasiboak:	89.547.239
<b>Guztira:</b>	<b>880.446.239</b>

Sarrerei dagokionez, zuzeneko zergak % 5,03 igo dira, eta zeharkakoak % 175 (20 mila pezetatik 55 milara).

Udalaren aurrekontu hauei San Juan Egoitza (73 milioi), Musika Patronatoa (ia 11 milioi) eta Zumaia Lantzen (664 milioi) elkartearenak gehitzen zaizkie. Erakunde hauek Udalaren diru laguntza jasotzeaz gain, beste diru iturri batzuk ere badituzte. Aurrekontu bateratua 1.623.088.717 peztakoa da.

### Alderdien jarrera

Aurrekontuekin ados azaldu ez zen bakarria Herri Batasuna izan zen. Alderdi honen iritziz, aurrekontuetan lehentasuna egoera sozialak izan beharko luke. Lehenik, herritarren behar sozialak asetzea proposatu zuten, eta gero egin daitezken inbertsioak egin. Egoera soziala latza

dela deritzo HBk. Alde batetik, babes soziala eskeintzea proposatu zuten: etxebizitzaren plana epe ertainera egitea, azpiegitura sozialak garatzea (haurtzaindegia, gaztetxea...). Bestetik, lan munduan Udalak duen politika

aldatzea eskatu zuten. Zerbitzu publikoak privatizatzearen aurka azaldu ziren, eta udal plantila zabaltzearen alde.

Ricardo Peñak erantzun zien HBren kritikei. Alkateak azaldu zuenez, privatizazioa arlo denetan ematen ari da eta administrazioa askeago ari da lanean. Gainera, Zumaian ez omen da hain handia privatizazio maila. Ur horniduraren gestioa Ur Partzuergoaren bidez privatizatzeke asmoa dagoela iragarri zuten.

Lan munduari dagokionez, Urola-Kosta Udal Elkartearen bitartez lan politika bat martxan dagoela gogoratu zuen Ricardok. Orain arte 651 ikasle pasa direla esan zuen eta ia %60a enplegatua omen dago. Etxebizitza berriak egiteko lurrak erosiko dira, baina etxe hauek garestiagoak izango dira. ■



Urtarrilaren 30ean egindako pleno luzean onartu ziren 1997ko aurrekontuak.



# ZUMAI A



## AUTO-ESKOLA

- Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



## TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57



# Euskal prentsa kinka larrian

## 45 aldizkarik eta Egunkariak Jaurlaritzaren subentzio jeitsiera salatu dute

Urtarrilaren 17an Euskal Herriko aldizkari gehienak bildu ziren Koldo Mitxelena 96an Eusko Jaurlaritzak eman dituen dirulaguntzen murrizketa salatzeke. 45 aldizkarik (Baleike barne) eta Euskaldunon Egunkariak egoera kezagarri hau salatzeke agiri bat sinatu zuten, eta aurrerantzean euskal prentsaren eskubideak hobeto defendatzeko elkarte bat osatzeari ere ekin zaio.

Herri aldizkarion kasuan dirulaguntzen murrizketa % 10,9koa izan da, Jaurlaritzak berak onartu duen bezala. Egunkariaren kasuan dirulaguntza 120 milioitan mantendu da, nahiz eta Jaurlaritzako Kultur sailatik esan 95etik 96ra nominalki aurrekontuetan % 28,6 hazi dela. Hori ez da hala. Baina ez da hau dirulaguntzekin izan den arazo bakarra. Gutxiago jasotzeaz gain, zeharo berandu iritsi dira. Izan ere, 96ko subentzioa 97aren hasieran jaso baitugu aldizkari guztiok. Hau arazo larria izan da askorentzat, hein handi batean urteko aurrekontua laguntza horiekin osatzen baitute. Baleikereren kasuan ez du kalte handirik eragin, aurtengoa izan baita dirulaguntza eskatu eta jaso dugun lehenengo urtea. Dena den, horrek ez du esan



Prentsaurrekoan aldizkarietako ordezkari bana izan zen. (Argazkia: Ander Gillenea)

nahi arazoaren garrantziaz jabetzen ez garenik, aurrerantzean geu ere kaltetuak irten gaitezke eta.

Datu batzuk ematearren: 95ean 80 milioi pezeta banatu ziren 39 aldizkariaren artean, eta 96an 66 milioi 34ren artean. 89tik Jaurlaritzak eman duen laguntzarik eskasena.

Kaleraturiko agiriak horrela dio: "Eusko Jaurlaritzak ez die, inolaz ere, euskal prentsaren laguntza-premiei behar bezala erantzuten (...) Euskarazko prentsak herri honentzat duen garrantzi estrategikoaz jabetzeko eta horren arabera laguntza-politika bideratzeko eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari

(...) Euskal prentsako komunikabideok, euskarak oro har bizi duen egoeratik, desabantaila handiarekin ari gara lehiatzen erdal prentsa nagusi den merkatuan."

Honek guztiak berez onera egiteko itxurarik ez duenez, eta elkarren artean indar gehiago izango dugulakoan, euskal prentsa osatzen dugun komu-nikabide guztiok elkarte bat sortzea erabaki dugu.

Une honetan batzorde bat ari da arduratzen estatutuak eta bestelako lehen pausoak emateaz. Elkarte martxan jartzen denean izango duzue bere berri. ■

*Jesuskoa*  
*Faletxea*

*Tfnoa 86 17 39 • Urdin Zumaia*

**M a i a u r**  
jolastokia

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA





*Prezioen  
igoera handi  
honek  
jendearen  
haserrea  
ekarriko du  
seguruena  
ere.*

## Treneko txartelen prezioak gehiago garestituko dira

Urte berriarekin batera, eta ohikoa den bezala, tren tarifak igo egin dira. Oraingo honetan % 5,25ekoa izan da. Honekin batera joan-etorriko txartela kentzea ere erabaki du Eusko Trenek. Honen arrazoia zona sistemaren ezarpena omen da.

Sistema honen ondorioz Zumaia eta Zarautz zona berdinean egongo dira. Biek txartel prezio berdina izango dute.

Lehen joan-etorriko txartelan egiten ziren deskontuak hemendik gutxira aterako diren bidai bonoetan egongo dira. Bidai bono hauek ez dira astekoak edo hilabetekoak izango, baizik eta 5, 10, ... bidaikoak. Baina ez pentsatu hau izango denik egongo

den igoera bakarra, hemendik denbora batera berriro igoko baitituzte tarifak. Honek arrazoi bat du: urte berria hastean Donostiara joateko txartela 285 pezetan jartzea erabaki zen. Hau igoera gogorregia izango zelakoan, epe batean tarteko salneurri bat ezartzea erabaki zuen Eusko Trenek (235 pezeta).

Bestetik, Donostia-Bilbo ibilbidea egongo duen tren bat jartzea erabaki dute. Tren hau Zarautz, Eibar eta Durangon geldituko da, baina ez Zumaian. Bilbora doan autobusik gabe geratu baginen, orain tren zerbitzu azkarra ere kendu egongo digute. Arrazoiak ematea ez da gure lana, baina Azpeitia-Azkoitian ezarri den Bilborako autobus zerbitzua izan daiteke hauetako bat. ■

### Laburrak

#### Gaztediaren ikerketa

Udaleko Gizarte zerbitzuak herriko gaztediari buruzko ikerketa bat egiteari ekin dio. Gure Ametsa taldeak egingo duen ikerketa honetan 12tik 20 urtera bitarteko gazteen beharrak, kezkak, herriko taldeetan duten partaidetza aktiboa, eta abar aztertuko dira. Sei hilabete iraungo dituen ikerketa hau ikastetxeetan eta kale mailan egingo da, eta prebentzioa du bere helburua.

#### Atun latak Tindoufera



“Sahararako euskal karabana 97” egitasmoaren barruan Zumaiaiko udalak Saharaiuen aldeko atun laten bilketa bat burutzen ari da. Oliotan gordetako atuna biltzea espero da. Latak 250-300 gramokoak izan beharko dira. Bilketa ikastetxeetan eta Gurutze Gorrian izango da otsailaren 10era arte. Bestetik, diruz lagundu nahi baduzu, Euskadiko Kutxako 060.0.07128.6 kontuan sar dezakezu. Kontuaren izena: “Atun kanpaina” da eta latak eta ibilgailuak erosteko erabiliko da.

**IZETA**  
orrastegia



Urumea 6  
Tlf: 862083

**ANA**  
ETXEKO ZAPIAK



Ignacio Zuloaga enparantza  
Tel. 861157

**Paki**   
Belardenda

OSASUN NATURALA  
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44



# Ideia ugari aurkeztu dira 650. urteurrena ospatzeko

Urtean zeharreko ekitaldietaz gain, argitalpen bat kaleratu nahi da

Joan den urtarrilaren 24an Zumaiaren 650. urteurreneko ospakizunak antolatzeko bigarren bilera bat egin zen Forondan. Bertara jende ugari hurbildu zen, guztiak euren proposamen eta ideiekin. Urtean zehar ekitaldi eta ikuskizun ezberdinak antolatzeaz gain, denboran zehar iraungo duen argitalpen bat kaleratu nahi da, urtemuga garrantzitsu honen oroigarri gisa.

Udaleko ordezkarietz gain, oro har kultur kezka duen jende ugari bildu zen Forondako aretoan ideiak proposatu eta egitarau ahalik eta osatuena egiteko asmoz. Lehen bilera batean ere izan ziren hainbat proposamen. Denak aipatu gabe ere, hauek dituzue proposamen batzuk: San Pedro abesbatzak Angel Enbil maisuaren 100. urteurrena betetzen dela eta, Pola de Sieroko abesbatzarekin topaketa egitea batetik; bestetik bi abesbatzekin eta bandarekin kontzertu berezi bat eskeintzea. Arte Taldeak erakusketa berezi bat proposatu zuen: arkeologia industrial, Zumaiako aldaketak... Erdiaroko azoka, Zumaiako



euskararen inguruko lanak: hitanoa, toponimia, familietako izenak... Gai ezberdinei buruzko hitzaldiak, bertako artxiboa ezagutzera eman, herriaren sortzaileen omenez plaka bat jartzea, Baltasar Etxabe eta beste hainbat pertsonaia ezagunen bizitza aztertzea. Irakaskuntza mailan ere hainbat gauza proposatu ziren: ikasleei historia ezagutzera eman, lehiaketa bat egitea: 700. urteurrenean Zumai nola imajinatzen duten... Aizarnazabal, Zehatz eta Oikia gogoan izatea ekitaldietan. Eta abar luze bat.

Ideia hauekin eta hemen aipatu ez direnekin urtean zehar zabalduko

den egitaraua prestatuko da. Baina honetaz gain argitalpen bat kaleratzeko beharra aipatu zen. Dagoeneko Aranzadiko Lourdes Odriozola lantzen ari da Zumaiako historia, gero liburu bat kaleratzeko asmoz. Baina lan hau ez da aurrean amaitua egongo eta gainera lan mardula eta sakona izango denez ez da herrian zabaltzeko egokiena. Horrela, Javier Carballo argazki zaharrez osaturiko argitalpen bat proposatu zuen. Baleikek bere aldetik ere azaldu zuen lan honetan laguntzeko borondatea. Gai honen inguruan Ricardo Peña

alkateak aipatu zuenez, *"ekitaldi puntualak ondo daude, baina fetxa pasa ondoren zerbait idatzia geratzea inportantea da"*. Argitalpenekin jarraituz, Juanjo Gabiñak CD-ROM bat egitea proposatu zuen, multimediarren garai berriari helduz. Laserra eta beste teknologia berriak erabiliz egindako ikuskizun audio-bisuala ere proposatu zuen. Bestaldetik, Ismael Manterolak iragarri zuen Zumaiaren historia jasotzeko duen bideo bat prestatzen hasiak direla. Lan honen gidoia Baleike bertan argitaratuko dugu hurrengo zenbakietan zehar. ■

**ERROTA**

**ERROTA**

OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAI

**EGOKI**

**ERLOJU DENDA**

**E.Gurrutzaga plaza, 6**  
**ZUMAI**

**ARGIA**

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAI



# Herritarron osasuna jokoan

Anbulantzia zerbitzuak oraindik bertan jarraituko du



Osakidetza ez dago larrialdietarako sendagilea jartzeko prest.

*Badirudi azken urte hauetan osasunarekin zer ikusia duen guztia galtzen ari garela. Hasera batean larrialdietako sendagilea kendu baziguten, eta asteburuetan aspirinak eroatera Getariara joan behar bagenuen, pasa den hilabetean Osakidetza ambulanzia kenduko zuela zabaldu zen.*

Jakina den bezala, orain dela lau urte Osakidetza Zumaian ezarria zegoen larrialdietarako sendagilea kendu egin zigun. Aldi batean, Udalak ordaindutako sendagile bat izan zen arratsalde eta asteburuetan gure osasunaren zaintzailea.

Baina hori ere amaitu zen; Udalak ez zuela zer ordaindu beharrik, eta batzuetan Zarautzera joan beharrean aurkitu ginen larrialdi kasuetan. Zumaiarrok ez geunden horrekin ados, eta batzorde bat sendagilea ekartzearen alde lanean hasi zen. Ekainean, udal plenoak honen aldeko mozio bat onartu ondoren, helburu

**Azken irtenbide gisa herri asanbladak anbulategi aurrean amaituko den manifestazio bat antolatzea pentsatu zuten**

beraren atzetik hasi zen Udala. Pleno horretatik urte erdi bat pasa denean, ez da inongo aurrerapausorik izan. Hori dela eta, batzordeak herri asanblada baterako deialdia egin zuen. Jendez beteta zegoen Oxfor aretoan Batzordekoek eta Udaleko ordezkariak orain arte egin duten lanen berri eman zuten.

## Batzordeak esandakoak

Aurreko udararen ondoren egin ziren ekintzen artean, gure etxeetan jaso genuen orri baten buzonada bat izan zen. Bertan larrialdi bat izanez gero egin behar genituen pausoak agertzen ziren. Zumaiari buruz Herri Irratikoek egin zuten irratisaioan ere aurkeztu zituzten beraien kezak. Irratikoak Osakidetzarekin harremanetan jarri ziren, baina hauek ez zuten ezer berririk esan nahi izan.

Zumaiako osasun zentruko koordinatzailearekin ere hitz egin zuten. Honen esanetan, zumaiarrek protestatu egin behar dute, berak ez baitu

**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15  
Tel. 862458

ITZURUN  
**K**  
KIROLAK

Amaiako plaza, 13  
Telef. 860758  
20750 ZUMAIA

**LEIZE**

Juan Belmonte 6  
ZUMAIA Tel. 860415



## Jendez beteta zegoen Oxfor aretoan Batzordekoek eta Udaleko ordezkariak orain arte egindakoaren berri eman zuten

sendagilearen alde Osakidetzan aurkezteko argudiorik. Gainera, 3-4 ambulanzia medikalizatu jartzeko intentzioa dago, horregatik komenigarria da idatzizko keak osasun zentroan aurkeztea, Arroako irteeran hauetako ambulanzia bat jartzeko aukera baitago.

Arartekoarekin ere harremanetan jarri dira. Honi herrian jasotako sinadura guztiak bidali zaizkio. Arartekoak gutun baten bidez erantzun die; bertan, ikerketa bat hasteko asmoa duela dio.

Batzordeko kideek diotenez pauso denak emanda daude, eta inongo aurrerapausorik ez egotean, ilusioa galtzen hasiak dira. Sendagilea behar dela jende guztiak daki, baina ez du ematen honen alde borroka egiteko gogo haundirik dagoenik, jendea egoera berri honetara egokitu egiten baita.

Sendagile beharraren adibidetzat Zumaian izan diren istripuak aipatu zituzten. Sendagileak, azaltzen badira, 30 minutu baino gehiagora etortzen dira.



Hasiera batean herriko ambulanzia kentzeko asmotan zeuden

### Udalaren pausoak

Montse Arana zinegotziak esan zuenez, Udalak egindako lanen artean, buzonadan laguntzarekin batera, uztailean onartu zen plenoko agiria Eusko Jaurlaritzara, Osakidetzaren Gipuzkoako ordezkarietara eta Zumaia osasun zentrura bidaltzea egon da. Esan zenez, oraindik ez da jaso inongo erantzunik. Bestetik, arazo hau dela eta, komunikabide guztiei zuzendutako prentsaurreko baterako deialdia egin zen.

Udalaren esanetan, eta Osakidetzak egindako eskualdeen zatiketa ikusi ondoren, larrialdietako sendagile bat izatea utopia bat izan liteke, beste eskualdeekin konparatuta, Tolosaldea eta Goierriekin bereziki,

hobekien komunikatuak gaudenak baikara.

Herritarrek hitz egiten zuten momentuan, tentsioa nabarmen igotzen zen. Hauen esanetan sendagilea izatea beharrezkoa da, eta Osakidetzak jarria ez bada, Udalak ordaindutako bat eskatzen dute. Batzordea eta Udala ados jarri ziren sendagilearena Osakidetzat konpondu behar duen arazo bat dela esatean.


Azken irtenbidetzat, herri asanbladak ambulategi aurrean amaituko den manifestaldi bat antolatzeke asmoa aurkeztu zuen.

Herri guztiak parte hartu beharko lukeen manifestaldi horren buruan Udala egotearen beharra aipatu zen. ■



## OPTIKA ZUMAIA


Txomin Agirre Kaia, 1  
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertze

Erribera kalea 6  
Tel./Faxa: 861707





*Batzordeko kideak astelehenero biltzen dira, Forondan.*

## Komisioa, udalaren erantzunaren zain

**UDARAN, ANBULATORIOKO KOORDINATZAILEAREKIN HITZ EGIN ZENUTEN. ZERBAIT LORTU AL DA?**

Fernando Alonso, ambulategiko koordinatzaileak dioenez, berak profesional bezala, sendagilea baita, ez omen du argudiorik aurkitzen larrialdietako sendagile bat eskatzeko. Bera Osakidetzak esaten duenarekin ados dago. Gainera, esaten duenez, sendagile bat edukitzeko baino aukera gehiago dago Arroako irteeran ambulanzia medikalizatu bat izateko.

**ASANBLADAN ESAN ZENEZ KEXA BAKARRA JASO DA. JENDE GUZTIA**

**SENDAGILE HORI EDUKITZEAREN ALDE BADAGO, NOLA ULERTZEN DA HORI?**

Kexa aurkezteko formulario bat bete behar da. Bertan zure datuak eta kexa aurkezteko arrazoiak jarri behar dira. Paper hori «filtro» batetik pasatzen da, eta ondoren kexa horrek funtsik baduen ala ez erabakitzen da. Ezin da kexa bat ezer gertatu aurretik aurkeztu; larrialdi bat izan ondoren aurkeztu daiteke kexa, ez aurretik.

Larrialdiak ere beren kriterioen barruan daude; beraiek esaten dute zein den larrialdia eta zein ez. Horrela, kexak ere beraiek aukeratzen dituzte.

Zumaian herriak ordaindutako sendagile bat egon zenean, 2000tik gora irteera egin zituen.

**ASANBLADA HORRETAN ESAN ZENEZ, PAUSO DENAK EMANDA DAUDE. ZER EGIN BEHAR DUZUE ORAIN?**

Une honetan legalki egin daitezken gauza denak eginda daude: bilerak, paperak, etab. Orain mobilizazioak egitea espero da. Horretarako Udalak aurpegia ematea espero da, eta horren ondoren plan bat erabakitzea. Asanbladan, manifestazio bat egitea erabaki zen, eta Udalari honen buru izateko eskatu genion. Orain beraien erantzunaren zain gaude. Kontua da, beraiek ez dutela sendagile bat ekartzea nahi; Udala konforme egongo litzateke orain dauden zerbitzuak hobetuko balira. Gehiago egiterik ez dute nahi.

**OXFORREN IKUSI ZEN NOLA UDALAK ETA ZUEK BATAK BESTEARI PILOTA PASATZEN ZENIOTELA. ZERGATIK EZ DA LANA BATERA EGITEN?**

Udalak arazoa bereganatu nahi izan balu, batzordea ez zen beharrezkoa izango. Gainera esan behar da oztopoak jarri dituztela. Udalak hau konpontzeko gogoia jarri balu, beste arazo batzuetan jartzen duen bezala, gauzak askoz hobekiago egongo liriateke. ■

ILE APAINDEGIA

**Merca**  
**Uranga**

Etxezarreta, 19 20750 ZUMAIA  
Telefona: 862342

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2  
Tel: 143089

**JE MAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**



Gidatzeko karnet guztiak

-Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean  
-Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita  
-Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



**Loitz**

Erribera 4  
Tel/Fax:  
143422

\*Eskola eta  
bulegorako materiala  
\*Enkoadernazioak  
\*Fax publikoa  
\*Aldizkari eta opariak



# Azkenean anbulantzia ez da kenduko

Herrian zabaldu bazen ere, Zumaia ez da anbulantzia zerbitzurik gabe geratuko. Hala erabaki zen urtarrilaren 23an Udaleko ordezkariak eta Osakidetzakoek Gasteizen egin zuten bilera batean. Bestetik, esan behar da anbulantzia medikalizatu bat Arroa edo Itziarko autopista irteeran edukitzeko aukera haunditu egin dela, horretarako hitzarmena sinatzekotan baitira.

Osakidetzak zituen planak ikusita, Gurutze Gorria Zumaia eta beste herri batzuetatik anbulantzia zerbitzua kentzeko asmotan zebilen. Hasera batean Gurutze Gorriak

anbulantzia bakoitzagatik Osakidetzak ematen zuen dirulaguntza haunditzea eskatzen zuen. Osasun zerbitzuak anbulantzia zerbitzuaren berrantolatzea Gurutze Gorriaren eskutan uzteaz gain, kopurua % 3 igo zuen. Zumaian kokatua dagoen anbulantziak behar

**Autopista irteeran  
anbulantzia  
medikalizatu bat  
edukitzeko  
aukera haunditu  
egin da**

hainbat irteera egiten ez zituela, eta beste herrietako datuekin parekatu ondoren, Zumaiaarako anbulantzia zerbitzua Zarautzen zentralizatzea erabaki zen.

Esan beharra dago, anbulantzia bera, ibilgailua, Zumaian geratuko zela, hau herriak Gurutze Gorriari emandakoa baita, baina larrialdi bat izanda 088ra deituko bagenu, Zarautzik etorriko zen anbulantzia, bertakoa zerbitzutik kanpo egongo baitzen. Baina aurretik esan bezala, oraingoz ez dugu horren arriskurik izango, oraindik ere larrialdi zerbitzuen barruan aurkitzen baita.

## Farmaziekin ere erdipurdi

Farmazien arazoa bestelakoa da. Gipuzkoako Farmazi Elkargoak guardiako farmaziak Zarautzen zentralizatzea erabaki zuen. Zumaiaiko botikek ez zuten erabaki hau gogo onez hartu, eta Getaria eta Zestoako botikekin hitz egin ondoren, beraien artean guardia egunak txandatzea erabaki zuten. Aizarnazabal ere tratu honetan sartzen da, baina bertako botika oso txikia denez, hau ez da txandetan sartuko. Lehen gertatzen ez zen bezala orain eskualdeko bost botikek (Zumaian hiru) astebeteko txandak egingo dituzte. Horretarako aste bakoitzean zer botika tokatzen den eta zer ordutegi izango duen jakiteko, egutegi bat aterako da. Gainera, kostaldeko bidea konpontzen ari diren bitartean, Getariako botikak trukea egin du Ajuria farmaziarekin. Horrela, Getarian tokatzen den bakoitzean Ajuriak izango du guardiako botika.



**Thauteri  
prezioak**

**expert**  
**ELEKTROGAILUAK**

Mertxe Aizpurua  
expert eta  
Repsol-Butanoren  
Banatzaile Ofiziala

Etexarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

**GURE TXOKOA  
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo  
ezberdinak

**San Pedro kalea Zumaia**



KAIXO, MIKEL  
LORONTZI-GIZONA  
NAIZ

GAZTE NINTZELA ETXE  
BATEAN BIZI NINTZEN.  
URA EGUNERO BOTATZEN  
ZIDATEN ETA EGOZKIAK  
ZUZENEAN SOTZEN NIN-  
DUENEZ SEKULAKO FO-  
TOSINTESIAK EGITEN NITUEN.



LORONTZI-GIZONA: IPAR AMERIKAN  
BIZI ZEN ESPEZIE ARRAROA, ERDI  
GIZON ERDI LORONTZI. GAUR EGUN  
BAKAR BAT GERATZEN DA




MIKEL  
FOTOSINTESI  
PROZESUAN






EGUN BATEAN  
TASMANIAKO  
BARRASKILO  
BURUHANDI BAT  
EZAGUTU NUEN.  
BEREHALA MAITE-  
MINDU GINEN.




TASMANIAKO BARRASKILO  
BURUHANDIA


JATORRIZ TASMANIAKOA DEN  
ARREN IPAR AMERIKAN ERE  
AURKI DEZAKEGU. MENDE  
HONEN HASIERAN BARRASKILO  
ASKOK EMIGRATU ZUTEN  
IPAR AMERIKARA ARTZAI  
BEZALA LAN EGITEKO  
ASMOZ. LOGIKOA DENEZ  
BARRASKILO ARRUNTA  
BAINO ARGIAGOA DA.  
BARRASKILO BURUHANDIARI  
"PUENTING" EGITEA GUSTATZEN  
ZAIIO.







HASIERAN ASKO  
KOSTATU ZITZAI-  
GUN UME BAT  
LORTZEA, BAINA  
BEHIN SARRAITO  
BEHARREKO PRO-  
ZESUA IKASI GE-  
NUENEAN GAUZA  
ERRAZA IZAN  
ZEN.



HILABETE BAT



LAU HILABETE



BEDERATZI HILABETE



LORONTZI BARRASKILO BURUHANDIA

**BUKATU DA**




Nork ez du noizbait entzun edo irakurri Urola-Kosta Udal Elkarteak hau edo bestea antolatu duela? Baina zehazki elkarte honen funtzioak eta nolakotasunak azaltzeko eskatuz gero, nor ausartuko litzateke? Lasai, hau ez da azterketa bat. Urola-Kosta Udal Elkarteak zehazki zer den jakiteko, bertako gerentea den Bernardo

## Bernardo Mendibe

Mendiberekin hitz egin dugu. 38 urteko bilbotar honek ederki ezagutzen ditu Udal Elkartearen gora-beherak, 1992an sortu zenetik bertan baitago lanean. Funtzioetatik, finantzaketaz, gobernuaz, proiektu berrietaz eta beste hainbat gauzetaz mintzatu gara berarekin Zarauzko Ebro Etxean.

# Urola-Kosta Udal Elkarteak, proiektu amankomunak bideratzeko tresna



Aurrera begira proiektu asko daudela kontatu digu Bernardok.

Urola-Kosta Udal Elkarteak -edo Mankomunitatea- bost herri osatzen dute: Orio, Aia, Zarautz, Getaria eta Zumaiak. Turismo gaitan, Zestoak ere hartzen du parte. Bernardori sorrera nolakoa izan zen azaltzeko

eskatu diogu. "1992an Udal Elkarteak sortu aurretik bi mankomunitate zeuden hemen. Bata zabor bilketaz arduratzen zen, eta bestea suhiltzaileen zerbitzuaz. Bestalde, tailer eskolarra ere

bazegoen. Funtzio hauek denak Udal Elkarteak hartu zituen".

Baina ez dira hauek gaur egun elkarte honek betetzen dituen funtzio bakarrak. "Lau arlo bereiz genitzake. Lehena, ingurugiro arloa litzateke. Bertan, zaborren bilketa eta gestioa da garrantzitsuena. Papera, beira eta pilen bilketa egiten dugu. Orain erropa zaharrena ari gara prestatzen. Europatik datozen legeen arabera, jasoketa berezi gehiago egin beharko dira. Etorkizunean, kontenedore gehiago ikusiko ditugu kalean. Bigarren funtzioa suhiltzaile zerbitzua-rena da. Hirugarren atal batean, enplegu trebakuntza daukagu. Hauxe da diru gehien eramaten duen saila. Eta laugarren funtzio bat ere badugu, solidaritatearena. Honen bitartez Saharatik datozkigun haurren egonaldia gestionatzen dugu".

**MAITE**  
**ILEAPAINDEGIA**  
Berezitasuna ileen  
sendabidean  
Amaiako plaza z/g Tlf: 143278

**ITSASKI**  
**supermerkatua**  
Urumea kalea z/g  
Zumaiak

**S**  
DORNUTEGI  
ARMAIRU ENPOTRATUAK  
SUKALDEKO  
ALTZARIAK  
Basoli Anzategia, 10 behe  
Telefonoa: 862051  
20750 ZUMAIK  
(Gipuzkoa)



**“Latak, tetra-brikak eta plastikoak jasoko dituen kontenedore berri bat ari gara negoziatzen Aldundiarekin”**

Horrelako garapen egiturak, Udal Elkarteak eta antzekoak, asko ugaritu dira Gipuzkoan, ez hainbeste Bizkaian eta Araban. Egitura hauen bitartez, udalek bakarka egin ezingo litzuketen proiektuak burutzen dira.

**Finantziaketa**

Udal Elkarteak 157 milioi pezetako aurrekontua du. Hortik, % 47a udalek jartzen dute. Beste % 53a iturri ezberdinetatik jasotzen da. “Diputazioa, Eusko Jaurlaritza, INEM, Europako fondo sozialak eta barneko baliabideak dira beste diru iturriak. Barneko baliabideak, gehienbat zabortegiaren esplotaziotik lortzen ditugu. Biltzen dugun papera saldu egiten dugu, eta isurketak kobratu egiten ditugu”. Aurrekontu honetatik, enplegu sustapenak eramaten du zati handiena. “Enplegu sustapenak 74 milioi eramaten ditu, eta zaborren kudeaketak 40 inguru”.

Aurtengorako eta etorkizunerako proiektu berrietaz ere mintzatu gara. “Bi programa azpimarra daitezke. Batetik, NOW izenekoa. Honen helburua emakumeentzako lanbideratze laguntza izango da. Oraindik diseinatzen ari gara. Europatik datorren programa bat


**Nola gobernatzen da Udal Elkarteak?**

Horrelako elkarte bat nola gobernatzen den, erabakiak nola eta nork hartzen dituen jakitea ere komeni da. Bernardo Mendibek horrela azaldu digu:

“Lehenik, **Batzorde Orokorra** dago. **Batzorde honetan Elkarteak osatzen duten udaletako zinegotzi guztiak daude, guztira 67. Pentsatuko duzuenek, hainbeste jenderekin oso zaila da lan egitea. Horregatik, hortik**

**Batzorde Exekutibo** bat ateratzen da. Hemen 7 zinegotzi daude. Zumaiaren ordezkariak hiru dira: Ricardo Peña, Asier Esnal eta Miguel Aperribai. Zinegotzi hauek hilabete behin edo bi hilabete behin biltzen dira eguneroko lanen jarraipena eta hartu behar diren erabakiak hartzeko. Hirugarren organo bat **Lehendakariak eta Lehendakariordeak** osatzen dute. Lehendakaria Juan Carlos Zuloaga Aiako alkatea da gaur egun.

Gero hauen azpian **Gerentearen** kargua egongo litzateke, eta hortik abiatuz, funtzio bakoitzaren buruan, **arduradun bat.**” Hauxe da laburki, Udal Elkartearen organigrama.



Zarauzko Ebro etxea

da. Hor sartzeko eta finantziaketa lortzeko sare bat osatu behar da gutxienez beste bi estatu eta elkartekin. Portugaleko udal batekin eta Belgikako beste batekin gaude harremanetan. Beste programa, ADAPT izenekoa da. Hau lanean daudenentzat birziklapen programa bat da”. Zaborren bilketaren arloan ere izango da ziurrenik berrikuntzarik. “Diputazioarekin ari gara negoziatzen beste kontenedore bat, latak, Tetra-brikak eta plastikoak

bilduko dituen. Hau oraindik erabakitzeke dago”.

Kontenedoreekin jarraituz, azpimarratu behar da gure eskualdean jendeak ondo erabiltzen dituela. “Gure Udal Elkartean sortzen da zabor gehien Gipuzkoa mailan, baina horrek badu azalpen argi bat: udarako turismoa. Bestalde, gaur egun kontenedore bat dago 500 biztanleko. Proporzio hau egokia da, baina zenbait udali 1/300ekoa jartzea eskatu digute. Kontenedore gehiegi pilotatzeko

**ekin**  
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK  
ISTALAZIO MUSKALAK  
AKUMULADOREAK  
ALARMAK  
ANTENAK  
PORTENO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97  
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74  
20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)

**JOSEBA OSSA**

**-ITZULPENAK-**  
euskara-gaztelera-katalana -  
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523  
**ZUMAI A**



**“Gure asmoa da jendeak hemen egiten dugun lanagatik ezagutzea. Hala ere, uneko kanpaina informatiboak ere egiten ditugu”**

*arriskua dago. Gainera, ez dago diseinu bateratu bat. Hau etorkizunean konpondu beharreko arazo bat izango da”.*

Jendeak Udal Elkartearen gainean duen informazio mailak ez du hainbeste kezkatzen Bernardo. Helburu nagusia jendeak elkarteak egiten duen lanagatik ezagutua izatea da. *“Hemendik jende asko pasa da eta esango nuke horiek ederki ezagutzen dutela elkarteak. Gure betebeharra zenbait funtzio ahalik eta hobekien betetzea da. Hala ere, egin ditugu uneko kanpaina asko eta uste dut jendeak pixkanaka informazio nahikoa jasotzen ari dela. Informazio harreman hori udalarekin egon behar dela esango nuke, hauxe baita lehen administrazioa, hurbilena. Gure bezeroak, udalak dira nolabait”.*

Lan munduan sartzea da lanbide sustapenaren helburu nagusia. Estatistiken arabera, % 55ak lortzen du lana Udal Elkarteako programa batetik pasa ondoren. Dena den, hor ere bereizketa bat egin behar da programa motaren arabera. *“Orain arte lanbide tradizionalak bultzatu ditugu. Aurten, Ingurugiro eskola bat sortu dugu. Sektore ekonomiko*

## Guascorren tailerrentzako toki finkoa prestatzen ari dira

Guascorreko eraikinean gaur egun ingurugiro eta errestaurazio eskolak daude. Ingurugiro eskolan ikasketa maila handiko hamar ikasle daude, bakoitza bere arloan ingurugiro gaietan espezializatzeko helburuarekin. Errestaurazio tailerrean bestaldetik, degradaturik dauden lekuak berreskuratzen ikasten ari dira. Baina badira proiektu gehiago Guascorren. “Edifizioa Eusko Jaurlaritzarena da, baina erabilpena udalari luzatu zion, eta honek elkarteari hitzarmen baten bitartez 600 m<sup>2</sup> utzi dizkigu. Hor, lanbide hastapen tailerrentzako egoitza finko bat egingo da. Honen beharra bagenuen”.



*bezala lanpostu asko sortuko dituena da, horregatik egin genuen apustu hau. Beti ere ekonomiaren egoera ikusi eta aztertu behar da programak diseinatzerakoan. Gure eskualdean sukaldaritza eta hostalaritza oso garrantzitsuak dira. Hemengok udalek turismoren aldeko apustua egin dutenez, hortik ere lanpostuak sortu beharko liriateke. Etorkizunean multimediaren mundua ere*

*kontuan izan beharko dugu”.*

Aurtengorako sei dira pentsatuta dituzten ikastaroak: igeltseritza, sukaldaritza, soldeaketa, merkatal teknikaria, empresa kudeaketa eta gida turistikoa. Dirua egonez gero, seiak egiteko asmoa dago, baina zaila izango da. *“Normalean, hiruzpalau antolatzeke aukera izango dugu. Ikastaro hauetarako finantzaketa kanpotik lortzen dugu: INEMetik, Europako fondoetatik, Eusko Jaurlaritzatik...”* ■

### ZALLA

Taberna - Erretegia  
**PLATER KONBINATUAK**  
**OTARTEKOAK**

**OILASKO ERREAK**

San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

### xirula



TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g  
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

20750 ZUMAIA

E G U Z K I  
**PUB**  
KOKTEL  
BEREZIAK  
Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA



# Sedukzioan zer eskatzen da

Sedukzioaren jolasak zer dakarren adierazi nahi nuke, entzun, ikusi eta esperimendatutako egoeren ondorioz. Gauza ederra da jolastea, baina zer nahi izaten dugu sedukzioa jolasten dugunean? Batetik gure kanpo edertasuna erakutsi, hori bai, goxoki eskaparate baten modura. Jantzi «sexiak» soinean jarri eta hantxe azaltzen gara gure nahiak adieraztera. Badugu aurean gustokoa dugun pertsona eta hor hasten da sedukzioaren jolasaren praktika. Ederra itxura! Begiak ondo luzatu seduzitu nahi dugunarengan eta hantxe, itxaropena handitzen... eta itxoinaldia luzatzen. Tipoaren aurpegia gero eta gehiago karamelo baten itxura hartzen doa. Eta gu baba dariola, lerdea ezin utsiz. Baina ze demontre! Zer eskatu nahi diot tipo honi?

Ona iruditzen zait galdera planteatzea. Bestalde salmentan zaudela dirudi, eskaparate eta guzti. Galdera honi erantzun ondoren, zergatik ez dut ba eskatzen? Beno, badirudi badaramala denbora dexente niri begira. Honek seinale ona ematen du. Itxaropena ezin handiagoa da. Hori bai itxaroteko pena ere. Nahi nuke ba tipo honekin xirri batzuk egin. Gogoak ukazina da eta nolakoa roiloa nahi dudana ere bai. Ondoko hondartzara joan eta elkarri eskua ondo sartu, eszitazioa igoz, jeisiz, haundituz, honela gau osoa igaro nahian.

Denbora asko igaro da... Ez al zaie gustatuko nere itxura? Ez al naiz ederra? Zergatik ez naute aukeratzen? Itxusia izango naiz. Edo ez sexiegia? Hara, badator tipo bat niregana. Uff! uste nuen gaur gauean berriro ere gogoekin joango nintzela etxera! Eskerrak nere sedukzioak


balio izan duen. Baina hau egia al da? Tipoak aukeratu nau azkenean. Are gehiago, berak proposatu dit egin nahi duena eta noski, nik onartu. Hainbeste itxaron ondoren nola ez ba jolastera joan? Aukeratua izan naiz eta honek badu balioa...

Ez daukat orain oso argi benetan baliogarria izan daiteken seduzitzea. Ez dut nahi dudana egiten... Aukeratu nauen horren menpe geratzen naiz, berak hartzen duelako inizatiba. Badirudi inizatiba nik hartu dudala sedukzioaren bidez, Ondorioek ez dute hori argitzen. Ez banindute aukeratu ez nuen egingo argi neukan hori: ederki gozatzea.

Eta bestalde aukeratua izan naizenez berari uzten diot nahi duena egiten. Ondorioz, ez badut argi eskatzen hasiera batetik, sartu-atera batetan bukatu daitezke gauzak. Edo bestela berari okurritzen bazaio posible da, nik nahi dudanarekin bat etortzea. Ez banaute aukeratzen zer? Non geratzen da nire inizatiba? ■



Ainhoa Iturbe



## NIKOL-ENEAA

taberna

**Amaiako plaza Tfnoa. 861440**

**DISKO-BAR**

*Nargi*



Alai Auzotegia 2.



**GILANO**

LIBURUDENDA

Paperdenda  
Aldizkariak  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak

**Baltasar Etxabe 7**  
Tlf: 14 31 91



**ZURICH**

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1  
Tel. Faxes. 860169

*Alberdi*  
**GIZONEZKOEN MODA**



Erribera kalea 6  
Tlf: 861155





Mª CARMEN MARTIN

Kalera joango naiz. Ihauteriak asko gustatzen zaizkit, baina ez naiz sekula mozarrotzen.



PATXI SERNA

Aurten ez naiz mozarrotuko, lan egin behar dudalako. Baina bestela ere ez naiz inoiz mozarrotu, ez zait gustatzen. Eibarkoa naiz eta han giro gehiago egoten da hemen baino.

# AEK-ko ikasleek zer egingo dute ihauterietan?



CARMEN OLEAGA

Orain ez naiz mozarrotzen. Lehen bai, Elgoibarkoa naiz eta han askotan joaten nintzen kalera mozarrotuta. Etxean egindako mozarroak gehiago gustatzen zaizkit dendan erositakoak baino.



Mª ANGELES GONZALEZ

Ez naiz mozarrotuko, nahiago dut besteei begiratzea. Burgoskoa naiz eta han lehen ez zen inor mozarrotzen, eta orain gazteak bakarrik.



ARANTXA

TERE

Kalean ez naiz mozarrotuko, baina lanean bai. Uste dut egoitzako guztiok hippyz jantziko garea.

Ez dakit zertaz mozarrotuko naizen, lagunekin oraindik ez dut hitz egin. Ondo pasatzeko asmoa dugu.



ARANTXA ENJUTO

Ihauteriak asko gustatzen zaizkit, baina orain nahiago dut besteak nola doazen ikustea. Lehen bai, lehen asko mozarrotzen nintzen, ondo gainera.

ARRAIN ETA MARISKOAK

BARAZKIAK  
**MARES** ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

BASADI-ZUSTATEGUIT, 4-A  
ZUMARRA  
TEL. 662001

HERATEGIT  
URDATEGIT

**ENTER INFORMATIKA**  
BALTASAR DE ETXABE z/g  
ZUMAIA  
☎: 86.11.75  
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA  
SERBITZU TEKNIKOA  
HARDWARE ETA  
SOFTWARE  
INFORMATIKAKO KURTSOAK





# Laster hasiko da pala txapelketa



*Hauek ez dakigu, baina beste batzuk hasiak dira txapelketarako prestatzen.*

Dagoeneko gainean dugu aurten III. edizioa beteko duen paleta gomazko San Pedro Saria. Iaz aldaketatxo bat izan zuen, partaidetza bertako jokalarietara mugatu baitzuen, eta aurten ere baldintza honi eutsiko zaio, hau da, ezinbestekoa izango da zumaiarra izatea edota bertan bizitzea.

Izena emateko epea otsailaren 19an amaituko da, eta egun horretan bertan egingo da bikote guztien arteko bilera, txapelketaren nondik-norakoak eta xehetasunak zehazteko, gaueko 10etan Frontoiko tabernan. Bikote bakoitzak 2.000 pezeta ordaindu beharko ditu, Frontoian bertan izena ematerakoan. Izenak berak adierazten duenez San Pedroak bitartean jokatu da txapelketa hau eta orrialde hauetan horren berri zuzena jasotzen ahaleginduko gara.

## izerdi tantak

### Enbil sasoi ederrean

Iazko urrian debuta egin ondoren, zestan adituak direnen ahotan dabil Gotzon Enbilen izena. Izan ere azkenaldian partidu borobilak egin ditu eta jokaturako gehientsuenak irabazi ere bai. Buruz buruko partidu bat ere irabazi zion Etchalusi, 25-19ko emaitzarekin. Figuren ondoan jokatzeko hasia da eta egunkari batean azaldu zen bezala, Enbil aparraren gisa gora doan puntista da gaur egun. Ez dezala behera egin!

### Zesta txapelketak

Odiatan bi txapelketaren finalak jokatu ziren. Batetik, II. Gabon Txapelketan Gurrutxaga eta Blazquez 30 eta 24 nagusitu ziren Artetxe eta Leonen aurka. Bestetik, IV. Axier Kirolak txapelketan juxtu-juxtu irabazi zuten Irigoien eta Lopezek, Beñat eta Lazkanok baino puntu bat gehiago egin zutelako, 30-29.



**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

# AZKUE

## Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

AHOLKULARITZA  
**JRURE**  
ASESORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

## AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45  
Tel.: 851485



**UROLA**  
TXIRINGITOA

Eguneko menua  
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656



## Eskolako kirola, lehiatzea ala parte hartzea?

**B**este garai batzuetan galdera honen erantzuna lehiatzea izango lizateke. Orain berriz, ondoren azalduko ditugun arrazoiengatik, partehartzearen mentalidadea nagusitzen ari dela esan dezakegu. Urtero ehundaka haur aritzen dira beren ikastetxeen izenean kirol ezberdinetan.

Eskolako kirolean aldaketa nabarmena eman dela begibistakoa da. Lehen mentalizazioa zeharo ezberdina zen; garrantzitsuena kasu gehienetan behintzat irabaztea zen, txapelketa eskuratzea, horretarako bitarteko guztiak ezarriz. Honek jakina, hainbat haserraldi eta frustrazio sorrarazten zituen haurren artean. Kirol mailan, talde onak eta kaxkarrak osatzen ziren, batzuk irabaztera joateko eta beste batzuk jokatu gabe baztertuta gera ez zitezten.

Beraz, argi eta garbi dago konpetitza zela garrantzitsuena eta ez partehartze hutsa. Honen errudunak neurri handi batean behintzat, irakasleak ziren. Talde horiek irakasleek eratzen zituzten eta beraiek ezartzen zuten konpetibitate giro hori, haurren artean zatiketa bat eginez. Zatiketa honek gainera eragin handia izaten zuen umearengan, zer ekipotan jokatzeko zuten araberak, bere burua gutxiestea ekar baitzezakeen.

Lehen eskolako kirola oso kontzentratuta zegoen futbolaren



Larunbat goizetan jokatzeko dira partidu gehienak.

inguruan, egun gertatzen ez dena. Momentu hauetan, ikastetxeetako haurrek kirol askoren artean aukera egin dezakete. Gainera antzinako mentalidadea alde batera utzita, inportanteena ondo pasatzea eta parte hartzea izaten da.

### Kirol koordintzaileen lana oso garrantzitsua da

Horrela azaldu digu Fran Aizpuruak, polikiroldegiko arduradun eta eskolako kirolaren antolatzaileak: *“Aldaketa handiena konpetitzeko mentalidade hori nabarmen gutxitzen ari dela da. Gainera kirol batzutan hau bultzatzeko sistema ezberdinak praktikan jarri ditugu, jokalaririk denak joka dezaten”*. Zentzu honetan aitortu digu, batzutan tira-birak egiten direla, momentu zailenetan jokalaririk onenak jokatzeko ari

ez direlako. *“Honek ordea gauzak lasaiago hartzeko balio diezaiekete, irabazteko grina horiek gainezka egin ez diezaiei haurrei, hain zuzen ere”*.

Ikastetxe bakoitzak orain gainera kirol koordintzaile bat du eta honek gauzak asko errazten ditu. *“Taldeak egiten dituzte, entrenatzaileak aukeratu, kirol klub federatu ezberdinekin harremanetan jarri... Beren lana oso garrantzitsua da”*. Polikiroldegia eraikitzea ere oinarritzkoa izan da eskolako kirolarentzako, asko lagundu du.

Gabonak arte futboleant aritu dira ikastetxeetako haurrek. Eta ondoren beste kirol askok hartu diote txanda: eskubaloia, atletismoa, esku pilota, zesta punta, piraguisismoa, mendi irteerak etab. Gainera aipatu beharra dago Zumaiako haurretaz gain, Aizarnazabal eta Zestoakoak ere aritzen direla, elkarren artean “lehiari”.

## Huntza, o.k.



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

ORDENAGAILUAK  
MULTIMEDIA

ERTZ  
INFORMATIKA

• Uria-Abendua  
WINDOWS, WORD  
• EXCEL

Mendator Maritika 3, TEL. Fax: 14 33 95



## Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433  
Fax: 861067





## Axier kirolak eta Kabi indartsu



*Bota barrura mutilak! porterua aurreratuta ziok eta!!*

### EMAITZAK

#### LIGA

Axier kirolak 7 - C. Landeta 4

Intxausti harategia 1 - Kabi 4

Gesem 6 - Zumea 5

#### KOPA

Basarri 2 - Ipurbeltz 3

Azkue & Eguzki 5 - Urberu Sag. 3

Inpernupe 11 - Basusta 4

Urberu Sag. 2 - Mendi-Ondo 4

Leize 2 - Buitraker 2

Inpernupe 3 - Azkue & Eguzki 0

Urberu Sag. 5 - Basusta 1

Ipurbeltz 3 - Basarri 8

Kabi Genelek 2 - Mendi Ondo 2

### HURRENGO PARTIDUAK

Otsailaren 9, 15 eta 23an.  
Martxoaren 1ean.

Hasi berria den bigarren fase honetan partidu oso gogorak jokatu dira. Lehenik eta behin Axier kirolak taldeak C. Landeta azpeitiarrei errebantxa hartu zieten, lehen fasean hauek nagusitu baitziren. Kabi eta Gesemek ere beren partiduak irabazi ondoren, finlaurrekotara sartzeko aukera gehiago dute orain. Zumeakoak hurrengo partidutan espabilatu beharko dira, aurrealdean muturra sartu nahi badute behintzat.

Kopan, berriz, Inpernuperen 2 garaipenak dira aipagarrienak, talde honek lehen fasea azken postuan amaitu baitzuen bere multzoan. Oker handirik ez bada finalaurrekotara sartuko da, bere multzoko beste batekin eta beste multzoan lehen bi postutan amaitzen dutenekin batera.

### izerdi tantak

#### Zumaiako F.T.ren oharra

Zumaiako Futbol Taldeak jakinarazi digunez, bertako zuzendaritza aldatu nahi da. Horregatik, norbaitek zuzendaritza honetan parte hartzeko interesik balu nahikoa du polikiroldegiko bulegotik pasa eta bere izena ematea.

#### Krosa martxoaren 9an

Martxoko bigarren igandean izango da aurtengo krosa. Ibilbideari dagokionez aldaketatxo bat izango du. Irteera Pulpo aurrean izango da eta hasieran bi itzuli emango zaizkio Amaiako plazari eta gero Erribera kaletik jarraituko du, Polikiroldegira joateko. Hemendik betiko 2 itzuli handiak eman beharko dira (itzuli bakarra emakumeek) eta bertan amaituko da. Aldaketa honekin dutxak eta aldagelak bertan egongo dira eta hasiera ere ikusgarri izan daiteke. Dena den, haur eta gaztetxoek lasterketa guztiak Amaiako plaza eta Paolbide inguruan izango direla aipatu behar da.

Badakizue, jantzi zapatilak eta hasi kroserako prestatzen. Eta jarraitu nahi baduzue KORRIKA pasako da 15ean, Zestoako krosa 23an izango da, Azkoitia-Azpeitia maratoni-erdia apirilaren 20an, Antiguako krosa...





## Ihauteriak 97

### Larunbata 8

16.30etan, Odieta pilotalekuan, eskulan tailerrak

18.30etan, TXIMELETAK txarangarekin kalejira.

23.00etan, TRABUKO taldearekin dantzaldia.

### Igandea 9

18.00etan, TXIMELETAK txarangaren saioa.

### Astelehena 10

17.00etan, haurrentzat jaialdia *Takolo, Pirritx eta Porrotx* pailazoekin. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai, Ludotekan.



Aurtengo Kartel lehiaketa Juan Luis Blancok irabazi du, 60 mila pezetako saria eskuratuz.

## Ludoteka zabalik

Ludoteka asteazkenetik ostiralera egongo da zabalik, arratsaldeko 5etatik 7,30etara. Larunbatez, 3,30etan zabalduko da.

Ihauterien programaren barruan pilotalekuan egingo diren Eskulan tailerrez gain, otsailaren 15 eta 22an bisitaldiak egongo dira. Bisitaldiak 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat eta haien gurasoentzat izango dira, eta aurrez gonbidapenak igorriko zaizkie. Informazio gehiago Ludotekan (143264).

## Tanborrada

Otsailaren 21ean, San Telmotako tanborrada antolatzeko bilera egingo da Forondan, arratsaldeko 5etan. Koadrila guztietako ordezkariak gonbidatuta daude.

## Eski irteera

Otsailaren 22 eta 23rako eski irteera bat antolatu da. 9.950 pezta oraindu behar dira, eta izena kiroldegian eman dezakezue (86 20 21).

Prezioaren barne autobusa, bi egunetako forfaita, gau bat pentsio erdian eta aseguruua. Udaletxeak dirulaguntza bat emango die ikasle eta langabetuei. Hilaren 17an, arratsaldeko 6,30etan bilera bat egingo da Forondan irteerako xehetasunak lotzeko.

### Larunbata 15

Musika Bandaren kontzertua Beheko plazan arratsaldeko 7etan

Udaleko euskara batzordeak **EUSKAL ABIZENAK GRAFIA ZUZENEZ IDAZTEKO** kanpaina egiteko asmoa du martxoan zehar. Beren abizen euskaldunak euskaraz ondo idatzi nahi dituzten guztiek, informazioa eska dezakete Euskara Zerbitzuan 860250 telefonora deituz.



Auto - Konponketak

# ELKAR




PEUGEOT

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201








# Mendi Astea

Otsailak  
**17**

**Raul Menero:**  
"Asgard. El señor del Artico"

Otsailak  
**18**

**Felipe Uriarte:**  
"Pamir-eko bihotzean"



Astelehenetik ostegunera 7,30etan  
Foronda Kultur Etxean.  
Iñurrategi anaiena 7,30etan Aita  
Mari zineman

Otsailak  
**19**


**Jose Ramón Eskibel:**  
"Estatu Batuetan eskalatuz"

Otsailak  
**20**

**Migel Mari Eloegi:**  
"Euskal Herriko fauna"

Otsailak  
**21**

**Iñurrategi anaiaik:**  
"Kangchejunga eta Sisha Pangma"



## IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen duzue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.

### Gazteleraz

Dasta eta goza itzazue ahal duzuen neurrian

- Intxaurrenondo. La trama verde
- El caso Aldo Moro
- La hija del embajador
- Las bailarinas muertas
- Un calor tan cercano

Pepe Rei  
Leonardo Sciascia  
Zoé Valdés  
Antonio Soler  
Maruja Torres



### Haur/Gaztetxoentzat

- Gautxoriak
- Inari, Laponiako lore
- Zlataren egunkaria
- El espejo en el espejo

Tormod Haugen  
Joseba Ossa  
Filipovia Zlata  
Michael Ende

### Euskaraz

- Su xahutzailea
- Ilargia ihesi
- Sara izeneko gizona
- Letrak kalekantoitik
- Zeruertzaren muga

Juanjo Gabiña  
Rax Rinnekangas  
Bernardo Atxaga  
Anjel Lertxundi  
Raul Guerra Garrido



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 143143

**Galdona**  
burdindegia

Mendaro marinela, 1  
Juan Belmonte, 15  
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330



# Zine



# Forum



## *Poderosa Afrodita* Otsailaren 13an

Lenny (Woody Allen), arte galeria bateko jabe den Amandarekin (Helena Bonham-Carter) ezkontuta dagoen kirol kazetari bat da. Emaztearen gogoei baietz esanez ume bat adoptatzen dute. Emaztea beste gizon batekin harremanetan jartzen den bitartean, Lennyk umearen benetako gurasoak zein diren jakin nahiko du. Umearen ama emagaldu bat (Mira Sorvino) dela konturatzean, Lenny, Greziar koro batez lagundurik abentura barregarri ugaritan sartuko da.

Woody Allen-en azkenbigarren pelikula da hau (musikal bat aurkeztu berria du), Eta New Yorkeko "genio" honen filme ia denetan gertatzen den bezala. komedia bizi, batzutan tristea eta beti ironiaz betetako elkarrizketez jositako lan baten aurrean aurkitzen gara.

Gainera, esan behar da Mira Sorvinok hemen egindako lanagatik oscar bat jaso zuela.

Woody Allen-en zaleak direnei ez zaie ezer gehiago esan behar, baina judu miopea jasaten edo ezagutzen ez dutenei esan nahi genieke agian filme honek beraien fobiak edo ezjakintasunak ezabatuko dituela. Maisu baten lan benetan gomendagarria.



## *Sospechosos habituales* Otsailaren 27an

David Kujan-ek (Chazz Palminteri), aduana zerbitzuetarako lan egiten ari den poliziak, Los Angeleseko portuan leherketa baten ondorioz su hartu zuen itsasuntzi baten ikerketa darama. Leherketa horretan 27 pertsona hil ziren, eta poliziaren ustetan, Dean Keaton (Gabriel Byrne), polizia-ohia da sutearen erruduna. Kevin Spacey, istripitik bizirik atera zen pertsona bakararra, poliziaren eskutan dago. Lekuko honen ahotik hitz ugari aterako dira, batzuk egiak eta beste batzuk ez hainbeste...

*Reservoir dogs* eta *Muerte entre las flores*en arteko thriller baten aurrean aurkitzen gara. Tarantinoren filmean bezala, lapur talde bat azaltzen da, baina hau ez da han gertatzen den bezala psikopata eta ahozabalez osatutakoa. Coen anaien maisu lanean bezala, gidoi korapilotsu bat du pelikula honek, agian tranposo xamarra, baina baita bikaina ere.

Bryan Singer-en bigarren lan honek, akademiako bi oscar jaso zituen: gidoi onenarena eta bigarren mailako aktore onenarena Kevin Spacey aktore bikainarentzat. ■

**batezulo**  
inportaturiko erropa  
eta artisautza  
Basadi 3 Zumaia

**TXOKOA**  
T  
B  
E  
R  
N  
A  
Artadi  
Auzoa  
86 21 89

**AIZPURUA**  
L  
I  
B  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
O  
P A R I A K  
Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefona: 861569  
20750 ZUMAIA



# Atxuiya sound


## Urolaldeko doinuak

**U**rte honen hasierarekin batera atera da konpakto hau kalera. Bertan momentu honetan Azpeitia-Azkoitiako talderik onenak agertzen dira. Beraien izenak: Zilbor Hesteak, Fundiziyue, Tau Ceti eta Mesias Berriak.

Talde hauek konpakto honekin egin dutena, musika munduan betitik egiten den gauza bat da: inork ez badizu zure musika argitaratu nahi, zuk zeuk atera ezazu, eta gainera ez maketa moduan, CDan ze demontre! Horretarako ez da behar soinu digitala eta halako gauzarik. Nahikoa da lokalean 8 pistako mahaitxo bat eduki eta imaginazio pixka bat jartzea.

Horixe egin dute aipatutako lau talde hauek, Atxuiyaren eskutan jarri eta daukaten guztia jarri dute disko honetan. Esan beharra dago diskoan agertzen den *Atxuiya sound* hori, inoiz baino egokiago dagoela jarria, musikaren grabatzailea izateaz gain, bi taldetako partaidea baita eta gainera beste baten kantuen hitzen idazlea. Bere talde batek irekitzen du diska hau.

**Zilbor Hesteak** da talde honen izena eta hauek jotzen duten musika azken urteetan Estatu Batuetatik heldu zaigun gitarra soinu gogor eta ezberdinetan oinarritzen da (*Sonic Youth* eta *Pixies*-etik hasi eta *Ama*



*Sayra* heldu arte).

Ondoren Euskadi Gazteako maketa lehiaketan irabazle izan dugun **Fundiziyue** taldea dator. Talde honen pop-rock musikak badu halako komertzialtasun bat (inola ere ez alde txarretik begiratuta), eta doinu bat buruan sartzen bada oso zaila bihurtzen da hau kanpora ateratzea. Diskako Azkoitiar talde bakarrak jarraitzen dio.

**Tau Ceti** da beraien izena, eta CDko beste taldeekin zerikusi gutxi dutela erakusten dute, beraiena *ska* eta *reggae* musika baita. Zazpi mutilek dira osatzen dute taldea, eta betiko gitarra-baxu-bateriaz gain, teklatuak, saxoa eta tronboia batzen dira. Gainera kantaria australiarra izatean, talde xelebreena bihurtzen da.

Diskoari Mesias Berriak-ek ematen dio amaiera. Talde honetan *Jotakie* taldeko gitarrak jolea izandako Manolok hartzen du parte, baina ez ezazue pentsatu Gipuzkoako talde onenatarikoa izan zenaren jarraipen bat besterik ez denik. Ez, hauek

haiek baino musika gogorragoa egiten dute, baina beti ere melodia kontuan hartuta.

Azpeitiako taberna batean egon ziren lau taldeak disko hau aurkezten, eta dudarik gabe esan daiteke beraiena kontzertuak ematea dela, zuzenean duten guztia ematen baitute. Aipatu zenez talde hauek (batzutan lauak batera, bestetan bi bakarrik, nork daki) Gipuzkoan zehar biratxo bat egiteko asmotan omen dira. Agian zorte pixka batekin gure artean izango ditugu beraien musika eskeintzen.

A!, ahaztu gabe, konpakto hau IHINTZA tabernan lortu dezakezue 1000 pezetaren truke. Ziur egon musika xelebrea duen disko polit baten jabe izango zarela. Animo, ez zarete damutuko eta. ■

 **JUSTA  
TABERNA**  
EGUNEROKO  
BAZKARIAK

Erribera kalea 20

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoiak tailer, etxe  
eta dendetara  
eramaten dira.**

**Tel: 862347-861001**

**IHINTZA**  
taberna

Tlf: 860472  
Omega y Gasset, 3



# Motxian hi!



**Zein: Gaizka eta Agus**  
**Zer: Txikixako tabernari haundiak**

- HAIN TXIKIXA AL DA TXIKIXA?
- BAI, OSO TXIKIA DA.**
- MUS TXAPELKETARIK EZINGO DA ANTOLATU HEMEN...
- EZ, BAINA TXINTXONEKO TXAPELKETA EGOTEN DA EGUNERO.**
- "DENBORAREN MAKINA" DEITZEN ZIOTEN TXIKIXARI, ORAIN ZER MUSIKA EGOTEN DA?
- ORAIN, 70ETIK 80RAKOA JARTZEN DEGU ASKO: ROLLING STONES, DEEP PURPLE...**
- NOLAKO AZEITUNAK DIRA HEMENGOAK?
- OSO ONAK, ANTXOADUNAK, EXTREMADURATIK EKARRITAKOAK.**
- INTERAKOAN NOLA BIDALTZEN DEZUE JENDEA?
- TILIN-TILIN KANPAIA JOTZEN DEGU, ETA BOTEA BOTATAKOAN ERE BAI.**
- PLAIEROTAN ZER MODUZ ZABILTZATE?
- GANBARAREKIN IRTETEN DEGU, KONPETENTZIAREKIN. SASOI ONEAN GAUDE, BAINA HAMAIKETAKOAK FALTA IZATEN DIRA.**
- TELEBISTA DIGITALIK JARRIKO AL DEZUE?
- EZ, EZ DAUKAGU TOKIRIKAN.**
- ATERA DEZUEN KONBINATURIK ARRAROENA?
- ORGASMOA ETA ASPIRINA.**
- ZENBAT TXIKITERO KOADRILA GERATZEN DIRA ZUMAIAN?
- GUTXI, OSO GUTXI.**
- IHAUTERIETAN ZERTAZ MOZORROTUKO ZARETE?
- SORPRESA SORPRESA, ISABEL GEMIO.**

kontu-kontari

## ENDAÑETA-OSTOLAZA

60ko hamarkadako bi harrijasotzaile onenen arteko norgehiagoek sekulako ikusmina sortzen zuten. Manuel Agirre "Endañetak" ez zuen harri handiekin parekorik. 250 kiloko errektangularra altxa, eta markak ezartzeari utzi zion areriorik ez zuelakoan. Jokoak, beti ere, abantaila ematen sinatu behar zituen. Harri txikiekin, berriz, Agustin Ostolaza arroarra nabarmentzen zen. Oraindik berak jarritako markaren bat indarrean dago. Kontuak kontu bizpahiru joko eginak zituzten elkarren kontra: bereziki gogoangarria da Tolosan 1973an jokatu zutena. Apustua amaitu eta Ostolaza gailendu zela eta, Endañeta ez zen nonbait konforme. Mailu handi bat hartu eta Ostolazak erabilitako harria mailu-kolpeka txikitzeari ekin zion, beruna sartu ziotelakoan. Baita txikitu ere. Ez zen, ordea, berun arrastorik aurkitu eta Itziarko harrijasotzaileak apustuan galdutakoaz gain, harritzarrari egindako txikizioa ordaindu behar izan zuen.

**ARGIA egutegia,**  
**urtarrilaren 23ko orria.**



# CARLIN

OFIMARKET

GEHITZEN DOAZEN EROSKETEKIN,  
"POCAHONTAS" BIDEO-ZINTA  
OPARITZEN DUGU.  
ESKOLA-MATERIALA.  
FOT. 5 PEZETAN

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

## BIZKOR

FOTOKOPIAK



- Enkuadernaketak
- Plastifikatzeak
- Fax publikoa
- Bulegoko materiala

Basadi 14, behea - Tlf: 143120



### ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAJA  
Tel. 143310

LARRIALDIK  
-24 orduetan  
-Zeure etxean  
-Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia:247790



**LANA**

34 urteko neska euskaldunak haurrak zainduko lituzke. 907 465138 (Maite).

**SALEROSKETAK**

Peugeot 106 Kid berria salgai. Tel. 813417 - 151038

Aita-Marin garaje itxia salgai. Tel. 861943

Zestoan pisua salgai, ganbara eta guzti. Deitu 862600 telefonora.

Zarauzko San Pelaio auzoan pisua salgai, altzari eta guzti. deitu 151775 telefonora.

**AGURRAK**

EGOBIS. Animo, laster iritsiko da uda eta.

Aupa Mantzano, hik bakarrik dakik golak 11 metrotatik sartzen.

Aupa Xanta! Behin menditik jeitsi eta kapitaleraino. Ez den giro!

Hi Pej: zorionak zure urtebetetzean, zorionak neska bota dezulako.

Hi Xeundito, bila ezak neska bat, bestela egunero "de eskopeta" joango haiz eta.

Hau da hau sinergiaz betetako hilabetia!!

**Salmenta puntuak**

**JESUSKOA JATETXEA ERROTA (ERRIBERA)**

**ERROTA (BASADI)**

**ERROTA**

**(J.BELMONTE)**

**OGI BERRI (AMAIA)**

**OGI BERRI (BASADI)**

**ARKUPE OKINDEGIA**

**AIZPURUA**

**LIBURUDENDA**

**OLANO LIBURUDENDA**

**LOITZ LIBURUDENDA**

**ALAI JANARIDENDA**

**NIKOL KAFETEGIA**

**INPERNUPE**

**ZALLA ERRETEGIA**

**FOTO GAR**

**ARROA BEHEA**

**NARRONDO TABERNA**

**L**ehiaketa Goxoa



Aurreko hilabeteko irabazlea **Arri Chamorro** izan da, argazkiko txoko hura Ardantza bidea esan zigulako. **Frutazko tarta ederra** jaso zuen, koadrilarekin jateko asmoz. Besteoi animo, oraingoan tokatuko zaizue eta!!

Noren omenez egin zen argazkiko eskultura?

Hau da, zein da irudian azaltzen den eskulturgilea?

Asmatzen duzuenon artean **TXAPARTEGI GOZOTEGIAK**

emandako

**tarta zoragarri** bat zozketatuko dugu.

Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna

Txapartegin bertan edota gure buzoian uztea

**otsailaren 21a** baino lehen. Zorte on!





KOSTA GAS



ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6  
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala




# TXINDURRI - ITURRI s a g a r d o t e g i a



-Txotxeko Sagardoa  
-Tortilla, Bakailua  
eta Txuletak

•Astean zehar afariak.  
Asteburutan bazkari eta  
afariak



TEL. 19 93 89 I T Z I A R